

## **EUDEL-ek euskal udalek eGobernuan izandako aurrerapena, herritarren partehartzea, antolaketa eta gizarteratzea aztertuko ditu Bilbon**

- **EUDEL-ek, eGobernu politika eta informazio gizartearen herrietako garapenei buruz Europako udalerrri, lurralde eta erregioen topaketarako EISCO foro nagusia antolatuko du**
- **Herrietako agenda digitala suspertzeaz gain, datozen urteotan egunean zeharreko 24 orдутan herritarrentzat zabalik izango den administrazioa lortzea da Eudel-ek EISCO 2010erako daukan erronka**
- **Bilboko Euskalduna Jauregian, maiatzaren 20tik 22ra bitartean ospatuko den EISCO-ren inaugurazioan euskal instituzioetako ordezkari guztiak, Europako Udalerrri eta Erregioen Batzordea eta Europar Batzordea izango dira**
- **“Herrietako eGobernuaren aldeko talde-lana. Herritarren parte hartzea eta zerbitzuen kalitatea” lelopean, europar 16 herrialdetako berrogeitik gora praktika on aurkeztuko dira.**

**Bilbo, 2010eko maiatzak 06.** Egunean 24 orduz administrazioa herritarrentzako zabalik izatea da Eudelek hurrengo urteetarako daukan erronka. Aipatu erronka lortzeko, Euskal Udalek urteak daramatzate ekimen desberdinetan gainontzeko instituzioekin lanean. Konpromiso hau 2005ean hartu zen Bilbon ospatutako Herrietako Gobernuen Europar Batzarrean, non EUDEL-ek Herrietako Agenda



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA  
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

Digitala suspertzeaz konprometitu eta Informazioaren Gizartearekin bat egiten zuen.

EISCO Kongresua dugu europar Udalen berrikuntza alorreko topaketarik garrantzitsuena. Eta Eudelek Euskadin ospatzea nahi izan du bere Plangintza Nagusian ezarri zituen funtsezko bi helbururekin bat egiten baitu: Euskal Udalen modernizatze eta irekitzea

Etengabe herritar guztiei zabalik dauden !24 / 365 Udaletara” egindako beste aurrera pausu bat da EISCO. Topaketa honek, arlo honetan europar “praktika onak” ezagutzea eta “fusioa” gauzatzea ahalbideratuko du, hau da, teorian ikasitakoa praktikan jartzea. “Herrietako eGobernuaren aldeko talde-lana. Herritarren parte hartzea eta zerbitzuen kalitatea” lelopean europar dozena bat herrialdetik gorakoen 40 bat praktika on aurkeztuko dira, besteak beste: Portugal, Italia, Holanda, Danimarka, Norvegia, Erresuma Batua, Austria, Finlandia, Polonia, Txekiar Errepublika, Belgika, Espainia.... eta nola ez, Euskadi-koak. Ermua, Arrigorriaga, Irun, Portugalete eta Bilbo-ko Udalek euren praktika onak aurkeztuko dituzte EISCO-n. Guztiak eGobernu, Herritarren partaidetza, antolakuntza eta gizarteratzeari buruzkoak.

Horrez gain, Europa osoko aditu eta zenbait herrialdetako udalerrri eta erregioetako ordezkari eta elkartek, esperientziak trukatu eta Herrietako Agenda Digitalaren aurrerapena eta sare digital eta komunikaziorako tresnen bitartez berrikuntzari egindako ekarpena aztertuko dute egun horietan zehar.

Herrietako Agenda Digitala dugu 2005az geroztik EISCO kongresu desberdinetako gai nagusia. Herrietako Agenda Digitala Plan Estrategikoa da gobernu ona eta Informazioaren Gizarteko herri/erregioen garapenerako



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA  
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

Europako udalerrri, hiri eta erregioetan. Hortaz, EISCO 2010-ak urte hauetan Herrietako Agenda Digitalak Europan izandako aurrerapenak ebaluatu eta Europar Batzordearen partaidetzarekin, datorren hamarkadan Administrazio Publikoek gainditu beharko dituzten erronka berrietaz eztabaidatuko du. Horrez gain, Europan zehar Herrietako Agenda Digitalarekin zerikusia daukaten esperientzia pilotu desberdinak azaldu, eta administrazioak modernizatu eta TIC irtenbideen bitartez herritarrei emandako eraginkortasun maila aztertuko du ere.

Europar Udalerrri eta Erregioen Batzordea (CMRE) eta ELANET europar sarearen lankidetzeta eta Europar Batzordearen sustapenarekin, EISCO 2010 EUDEL, Euskal Udalerrien Elkarteak antolatuta dago EISCO 2010.

### **Eudel eta Herrietako Berrikuntzarako Agenda**

EUDEL, Euskal Udalerrien Elkarteak hiru arrazoirengatik konprometitu da EISCO antolatzerara:

- EUDEL-ek 251 udalerrri eta bi milioi herritar baino gehiago ordezkatzeko dituen udalerrietan gauzatzea da bere konpromisoa, hauek baitira hirien aldaketarako motorea.
- EUDEL-ek Herrietako Berrikuntza Agendaren lidergoa dauka. Eusko Jaurlaritza eta hiru Foru Aldundiek bultzatutako ekimen honek, Euskadin berrikuntzaren sustapenean lanean ari diren lagun eta erakunde guztiek partekatutako estrategiara, euskal udalerrriak biltzea dauka xede. Herritarrak dira ekimen honetako benetako protagonistak eta gobernu era berriak bultzatu eta herritarrei zerbitzuak eskaintzeko era berriak asmatuz, berrikuntzaren printzipioak udaletan garatzea da bere helburua. Hau da, herri gobernu garden eta partehartzaileagoa lortzea.



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA  
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

- EUDEL-ek beti izan ditu harreman garrantzitsuak Europarekin eta EISCO kongresu honek, beste aurrera pausu bat ematearen ekarpena egingo du europar udalerriekiko harreman estuagoa ezartzerakoan.

Hoan hemen Herrietako Berrikuntza Agendaren ezaugarriak:

- Udalerrian zentratua.
- Tamaina edozein dela ere, udalerrri guztietarako pentsatua.
- Herritarren partaidetzan eta herriko eragileekiko lankidetzan oinarritua.
- Lankidetzan oinarritua, ezagupena eta esperientzia partekatzea bilatu eta instituzioetako lankidetzan oinarritzen da.
- Ekintzara zuzendua, mailaz mailako aurrerapenak planteatzen dituelarik.

## **Babesleak**

**Arabako Foru Aldundiak** teknologia berriak eta E-Administrazioa ezartzeko herrietako erakundeei eskaini beharreko laguntzaren alde egiten du. Hortaz, Diputazioak ordaindutako modernizatze eta sarbideratze plangintza jarri dute abian, beraz, honen kostua doakoa izango da Udalantzako. EISCO-n daukan parte hartzeak, hasi berria den eta 2010eko abenduan arabar udal guztietan E-Administrazioaren ezarpenarekin amaitu nahi duen bide honetarako bultzada izan nahi du.

**BiscayTIK** Bizkaiko Foru Aldundiaren ekimena da, eta hauek dira bere helburu nagusiak: administrazioa herritarrengana hurbilaraztea, Bizkaiko udalen tresna informatikoak homogeneizatzea eta Bizkaia informazioaren eta ezagutzaren teknologien aplikazioaren arloko nazioarteko erreferente bihurtzea, tokiko e-Administrazioan espezializatutako Zentro Teknologiko bat sortuz.



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA  
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

Testuinguru horretan, BiscayTIKek eta Bizkaiko Foru Aldundiak, Bizkaiko tokiko administrazioen modernizatzaileak diren aldetik, uste dute EISCO bezalako ekitaldiak garrantzi handikoak direla; izan ere, administrazio elektronikoaren balioa indartu eta sendotzen dute, sektore publikoaren elementu estrategiko gisa.

**Gizpuzkoako Foru Aldundia.** Informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKTak) ekarpenari esker, eraginkortasuna eta efikazia bilatu ahal izango dira eta herritarren parte-hartzea bultzatu ahal izango da; izan ere, teknologia horien aurrerapenak eta garapenak aldatu egiten du zerbitzu publikoaren paradigma. Bere administrazio prozesu eta prozeduretan oinarritako administrazio batetik, herritarrengan oinarritutako administrazio batera pasatuko gara, non erakundeen arteko lankidetzak protagonismo handiagoa izango baitu; izan ere, zeregin horretan, esperientziak partekatzeak gure kudeaketa hobetzeko aukera ematen digu. EISCO bezalako ekimenak funtsezkoak dira, Europako erakunde desberdinen arteko harremana ahalbidetzen baitute, praktika onen trukea ahalbidetuz.

Informazioaren teknologiak tresna eraginkorra dira, hurbiltasuna, berehalakotasuna eta abiadura dakartelako. Baina, **BBKn** argi dugu abiapuntua baino ez direla eta aurretik E- duen ororen helmuga konfiantza, gardentasuna, konplizitatea edo erantzunen malgutasuna direla. Azken batean, helmuga pertsonak dira, bere zerbitzura gaituen gizartea

**Kutxarentzako,** Eudel-ekin lan egin eta Informazio Elkartearen Europar Batzordearen arrakastari laguntzea, gustura onartutako erantzukizuna da. Kongresuaren aurreko ekitaldiak berme handia dira. Honako honetan lortu nahi diren helburuak: esperientziak partekatu, herritarren parte hartzea erraztu,



**EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA**  
**ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS**

zerbitzuen kalitatea bultzatzeak..., herritarren inplikazio publikoa udalerraren balorea dela sinisten dugunongan baino ezingo dute aurkitu. Eta gizakiek eta herriek garrantzi handia daukate Kutxan.